

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak aurrera egin dezan, baliabideak multzo ezberdinetan banatuta egongo dira; fisikoak, ez-materialak eta giza baliabideak.

Hasteko, baliabide fisikoei dagokionez, denda fisiko bat izango dugu Donostian, honek biltegi bat eduki beharko du edozein motatako betaurrekoak bildu ahal izateko eta baita ere tailer bat konponketak edo erreparazioak egin ahal izateko. Beraz, lokal hau 100 m²-koa izango da eta biltegia, denda eta tailerra eremuak lokal beran kokatuak izango dira, halere, sailetan banatua egongo da. Honetaz gain, dendan hainbat baliabide beharko ditugu gure produktuak saltzeko eta bezeroak eroso sentitzeko erabakiak hartzeko orduan. Horretarako, ordenagailua, etiketak egiteko inprimagailua, apalak, mahai bat, ispiluak... Bestalde, gure produktuak ekoizteko, lenteak eta monturak izan beharko ditugu eta hauek konpontzeko, zenbait tresna erabili beharko ditugu, adibidez, bihurkinak, pintza zehatzak, lupak, erretxina bereziak, lixa txikiak, konponketarako zintak, etab. Azkenik, ontzietara agian ez dira betaurrekoen kaxak botako, beraz hauek erosi beharko ziren gure produktuak babesteko.

Jarraitzeko, ez-materialei dagokionez, webgune bat izango dugu bertan betaurrekoen informazioa azaltzeko. Honetaz gain, sare sozialak ezinbestekoak eta oso garrantzitsuak izango dira guretzat, gure produktua ahalik eta jende multzo handienera iritsi ahal izateko. Horretarako, hosting zerbitzu bat kontratatu beharko dugu, horregatik Hostinger premium plana aukeratu dugu urtean 117,18€ ordainduz. Beraz, mailegu bat beharrezkoa izan beharko da, kapital guztia biltzeko laguntza behar dugulako.

Giza baliabide zein baliabide intelektualetan oinarrituz, enpresaren langileak gu geu gara. Gure enpresaren funtzionamendua bermatzeko nahikoa izango dugu taldea osatzen dugun lau kideokin. Lehenik eta behin, bitala da ekoizpen buru bat izatea, kasu honetan Alex Gomez izango dena, hau da, sortzailea eta diseinatzailea. Bere betebeharrak betaurrekoak produzitzea (konpondu) eta diseinuak sortzea da. Bigarrenik, merkataritza eta salmentak kontrolatzen dituen buru bat. Alde batetik, jendeaurreko arreta pertsonalaz arduratuko da. Horretarako, Oier Azkue dugu, bezeroen zalantzak argitzeko, informazioa zabaltzeko, produktuak saltzeko... Bestalde, hornikuntzarekin arduratuko da, produktuak antolatu eta biltegiratuko ditu. Hirugarrenik, gure webgunea eta sare sozialen kontuak martxan jartzeko Ander Ascargorta izango dugu. Baita ere merkatua aztertuko du eta marketing estrategiak erabakiko ditu. Azkenik,

Itzea Umerezek dirua kudeatzeko dituen trebetasunak praktikan jarriko ditu. Bulegoan administrazio-lanetan jardungo du, finantza-arloan diru-sarrerak eta gastuak kudeatuz eta baita ere etorkizuneko inbertsioak eta aurrekontua planifikatuz. Administrazioaz arduratzeaz gain, giza baliabideen, kontabilitatearen eta fakturazioaren ardura ere izango du.